

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Alde batetik, bezeroekin harremanetan jartzeko bi komunikazio-kanal erabiliko ditugu: lehengoa, fisikoa izango da, gure dendara etorritz gero, bertan egin ahal izango dutelako eskaera, dendan bertan jateko edo eramateko. Bigarrena, gure webgunea izango da, eta bertan egin ahal izango dituzte eskaerak, dendan jasotzeko edo etxera eramateko.



Banaketaz gu arduratuko gara zuzenean. Ordainketari dagokionez, dendan bertan eskaera eginez gero, diru fisikoarekin edo txartelarekin ordaindu ahal izango da, eta interneten bitartez ordainduz gero PayPal sistemaren bitartez ordaindu ahal izango da ere.

